

## LEI DELA-ETA DESKONTUAK: ERANTZUN TXUNDIGARRIA

Sinestu ezinik gaude. Beste sindikatu baten informazio orrian jakin behar izan dugu: hemendik aurrera ez omen diete deskonturik egingo titularrei LEIko 6.garren hilabetea pasata.

LABek hasieratik eskeini zuen bere burua zegozkien errekursoak egiteko, kontu horrengatik deskontua egin zioten afiliaturik ez izan arren; administrazio-bidean lagundu genituen afiliatuak ez ziren langile batzuk, alegia. Horien artean batzuek ez zuten aintzat hartu auzibidera jotzea, horretarako dirurik ez zutelako, edo kostak ordaindu behar izateak dakarren arriskuari aurre egin nahi ez zutelako.

Izan ere, Justizia Sailak gogotik jotzen du zigortzen duenean: legeak zeurea dela dioen diru piloa kentzen dizu; baina berreskuratzen saiatzekotan, are garestiago gerta dakizuke kostak direla-eta. Hortaz, ezin zaie leporatu - pertsona jakin horiei, behintzat- bukaeraino ez heltzea; ezta esatea ere txarto aholkatu zituztela.

Ezin dugu onartu hau bezalako gai larri bat erabaki judizialen menpe egotea. Batez ere, administrazio honetan guztiok ondo baino hobeto dakigunez, epaitegi batean ematen dizuten arrazoia aurrealdekoan kentzen dizutelako.

Horiek guztiak aintzat harturik eta uztaileko bileran Erkoreka ondoan zuela Agirre Sailburuordeak esan zuena gauzatzen ez zela ikusirik, LABek ARARTEKOrak jotzea erabaki zuen.

Uztailean funtsean gertatu zena da ondokoa: sailburuari esan genion jadanik aurreko batean premiatu genuela gobernuak horren gai lazarriaren zeraman jokabidea utz zezan. Hizpidea gai-zerrendako erregistro zibilera desbideratzen saiatu ziren, baina LABek ekin zion: bere burua demokratikotzat duen gobernuak bere eskumeneko langileak babesik gabe uztea ezmorala da. Horrez gain, jakinarazi genien horrelako jokaerak, eta oro har sailaren jarrera, direla justiziako langileak sumindu eta gogaitu egiten dituztenak: kokoteraino gaude ekipo osoaz!

Protestatzeari uzten ez geniola ikusita, sailburuordeak erantzun zigun denbora kontua zela, baina erabakia hartua zutela: LEIko 181. egunetik aurrerako deskontuekin ez zuten jarraituko. Hala ere, ez zuen jakin erantzuten LABi: Zer gertatuko da aurrean kendutako diru-kopuruekin?

Informazio orri hau hastean *erantzun txundigarria* diogu, LABek ere Jon Uriarte Zuzendariari zein Begoña Otazua pertsonal buruari galdetu bazien ere, guk oraindik ez baitugu erantzunik jaso. Auzia Arartekoren esku ipini izana mehatxutzat hartu ote dute? Edo nabarmen utzi ditugula jotzen dute, agian?

Edonola ere, garrantzitsua hauxe da: Kontzeptu hau dela-eta kendutako diru-kopuru guztiekin zer asmo daukate? LABen ez gara konforme geratzen aurrerantzean ez dutela egingo entzutean. Nahi duguna da kaltetutako guztiei kendutako euro den-denak atzera eman ditzala Eusko Jaurlaritzak.

Bada, sahiestu behar da gatazka honetan bitarteko langileen hirurtekoekin gertatutakoa berriro pasatzea: gaur egun oraindik bada kobratu ez duenik. Euren kontaktoak eta banku datuak eduki arren, sailak beren-beregi eskatzeko exijitzen die, administrazio honetan dagoeneko lan egiten ez daudela jakinda ere.

**Ez dugu behar onartu administrazioak egindako gehiegikeriak konpontzeko bide bakarra auzitegiak izatea. Sindikatuon zereginak beharko luke mugimenduak eta ekintzak antolatzea eta, horiexek bultzatuta, benetako negoziazioa erdiestea. Hori lortzen ez dugun bitartean ordain dezakeenak errekurrituko du eta izorratuko pagatu ezinean dagoena. Aspalditxotik salatzen duguna: aberatsentzako justizia.**

Baina, ez dakigula ahaztu bitarteko langileen hirurtekoen inguruko gatazkan, epai ugari izan zirela hirurtekoak ordaintzearen aldekoak eta baita kontrakoak zioten asko ere. Erkidego honetan lortu genuen, negoziazioaren bidez lortu ere, ezezko epaia jaso zutenek ere kobratzea. Azken batean, epailea barik, ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa izan ziren arrakastaren zioak. Dirudienez, egun, auziak judizializatu nahiago du sailak, oro har, etekin handiagoak ekartzen baitizkio.